

Lan merkatua

Antzeko garapen maila duten erregioetatik gero eta urrutiago

Gaindegiak, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategiak Euskal Herriko lan merkatuaren egoera aztertzen duen txostena argitaratu berri du. Bertan, gure lan merkatua zertan den ulertzen laguntzen duen adierazle sorta zabala eskaintzen da —horietako batzuk lehen aldiz kalkulatuak Euskal Herri osorako—.

Adierazle horien artean daude, besteak beste, Euskal Herriko jarduera-tasa, enpleguaren eta langabeziaren bilakaera azken urteetan, sektoreen bilakaera, lanaldi motak, lan kostuak, emakumearen egoera lan merkatuan, gazteen egoera, eta abar. Adierazle horiek grafiko nahiz taulen bitartez eskaintzen dira, irakurleak erraz ikus ditzan Euskal Herriak bizi dituen fenomenoak.

Euskal Herriko datuez gain, adierazle asko herrialdeka ere eskaintzen dira, ohi bezala lurraldetasun ikuspegiari eutsi nahi izan diolako Gaindegiak. Horrez gain, Euskal Herriko zenbait adierazle Europako erreferente diren erregio eta herrialdeetakoekin alderatu dira; esaterako, Kataluniakoekin, Eskoziakoekin edota Flandriakoekin. Azkenik, gaian aditu diren Aitor Bengoetxea eta Mari Luz de la Cal-en iritziak jasotzen dira, EHUko ekonomia irakasleak biak, bai eta eragile nagusien gogoetak ere: sindikatu nagusiak, ADEGI eta Ikuspegi (Immigrazioaren Euskal Behatokia).

Gaindegiak txostenak ematen dituen bi ondorio azpimarratu nahi izan ditu:


- 1) Gure adierazleen bilakaera mediterraneoko herrialdeetakoekin parekoa da, alegia, prekarietatea nagusi duten lan merkatutakoekin antzekoa; aldiz, gure BPGari eta langileko produktibitateari begiratzen badiegu, Europako herrialde garatuenean artean gaude.
- 2) Euskal Herrian bi lan merkatu eredu daude: Ipar Euskal Herrikoak, berezko arazoak baditu ere, enpleguari eusten dio eta azken urteotan bilakaera orekatuagoa izan du; Hego Euskal Herrikoa, ordea, enplegu galera geldituko duten premiazko mekanismoen beharrean da, belaunaldi ordezkapena sustatzeko eta sistema produktibo berria eta lan harreman propioak garatzeko balioko duten mekanismoak.

Gaindegiatik azpimarratu dute “gure lan merkatuak arazo estruktural larriak” dituela, gure sistema produktiboaren etorkizunari eta kohesio sozialari zuzen-zuzenean eragiten diotenak. Horri erantzun ahal izateko, ezinbestekoa da “bai sindikatuak, bai patronalak bai administrazioek elkarrekin gogoeta sakona egitea, etorkizunean jarraituko dugun estrategia adosteko”. Gaindegiaren ustetan, industria produkzioa bultzatzea da estrategia horren lehentasunetako bat, balio erantsia duten produktuen alde eginez, hori baita krisialditik irteten ari diren herrialdeak egiten ari direna.

Lan egiteko adinean dagoen biztanleriaren galera

Euskal Herriko biztanleriaren zahartze prozesuak eragin zuzena du lan merkatuan: 2009tik nabarmen galtzen ari da lan egiteko adinean dagoen biztanleria. Kontuan izanik Euskal Herriko biztanleria aktiboaren %24,6a kanpoan jaioa dela, eta belaunaldi aldaketarako gure buruarekin aski ez dugula izango, aniztasun horri eustea izango da erronka, bai eta etorkizunean ere migrazio fluxuentzat toki erakargarri izaten jarraitzea ere.

Lan egiteko adinean dagoen biztanleriaren bilakaera (2008=100). Euskal Herria eta EB 28, 2004/2013




Enplegu galerak bere horretan dirau

2013an Euskal Herriaren enplegu galera (-2,7 puntu) EB-28ko batez bestekoaren (-0,2) oso gaintik egon zen. Enplegu tasari adinaren arabera begiratzen badiogu, enplegu tasa altuenak 35-44 urte bitartekoetan (%78,6) eta 45-54 bitartekoetan (%74,2) aurkitzen ditugu. Ipar eta Hego Euskal Herriko enplegu-tasak bereizten baditugu, heterogeneotasuna eta bi eredu ageri dira: adin talde guztietan, Iparraldeko enplegu maila handiagoa da Hegoaldekoa baino, eta desberdintasunak are handiagoak dira sektore ahulenetan (24 urte baino gutxiago eta 55 urte baino gehiago).

Azpimarratzekoa da 2013an enplegu galera handienak 20 eta 24 urte arteko (-16,8) eta 25 eta 34 urte arteko (-9,2) gazteengan metatu zirela. Kontra, 2013an, 20 urtetik beherakoen (+3,7) eta 55 urtetik gorakoen (+2,7) artean besterik ez du egin gora enpleguak Euskal Herrian.

Bestalde, langabezia-tasak eta iraupen luzeko langabeziak goranzko joera dute azken urteotan; azken honi dagokionean, Bizkaiak (%9,6), Arabak (%7,8) eta Nafarroa Garaiak (%7,1) Euskal Herriko batez bestekoa gainditzen dute.

Langabezi-tasaren bilakaera, adinaren arabera. Euskal Herria, 2008/2013



Guztiaren gaintik, baina, gazteek pairatzen duten egoera aipatu beharra dago: 15-34 urte bitarteko lau gazteetatik bat langabezian dago (%26,3); datu hori erreferentziatzko erregioekin alderatuta Kataluniak bakarrik gainditzen du (%31,6). Bestalde, 15-24 bitarteko gazteen artean oraindik ere altuagoa da langabezia-tasa (%43,3).

Sektore guztietan, galera

Enplegu bolumenari dagokionean, zerbitzu sektorea da 2013an bilakaera negatiboena izan duena. Sektore honek biztanleria okupatuaren %70a hartzen du, eta krisi urteetan enplegu bolumenari hoberen eutsi dion sektorea bada ere —beste jarduera batzuetatik etorritako langabetuak hartu ditu—, 2013 urtean 3,6 puntu jaitsi zen, behin-behineko datuen arabera. EB-28an, aldiz, 0,4 igo zen. Sektore honek bereziki indar handia du Lapurdin (%80,1) eta Bizkaian (%75,3).

Industriak enplegua galtzen jarraitzen du, nahiz eta azken urtaldiko galera (-2,8) ez den aurrekoan izandakoa bezain gogorra izan (-8,7). Euskal Herriko industria sektorearen pisua (%20,8) Alemaniakoaren oso antzekoa

da (%21,0), eta gure ekonomian duen trakzio ahalmena kontuan hartuta, zabaldu egiten da enpleguan oro har duen eragina. Herrialdeka, industria enpleguaren pisu handiena Nafarroa Garaian (%26,1), Araban (%25,4) eta Gipuzkoan (%24,6) dago.

Lan baldintza gero eta prekarioagoak

lazko datuen arabera, Euskal Herriko soldatapeko populazioaren %19,7a behin-behineko kontratu batekin ari da lanean, eta zifra hori EB28koa baino sei puntu handiagoa da (%13,8). 2013an Hegoalden idatzitako kontratuen %93,9a behin-behinekoak izan dira. Era berean, krisia hasi zenetik, gero eta gehiago dira lanaldi murritzean lanean ari direnak (%16,4), baina Hegoalden, esaterako, lanaldi murritzean daudenen %49,6ak lanaldi osoan lan egitea hautatuko luke, horretarako aukera izango balu.



Gaur egun, beraz, argia da Euskal Herriko lan merkatuan dagoen prekarietatea. Hegoalden legedi malguagoak aplikatzen ari dira, baina babes soziala gutxitzen doazen bitartean: formula horiek garapen ekonomiko baxuari erantzuten diete, eta ez dira, beraz, gure errealiterara ongi egokitzen. Hala, Herbehereetako edo Danimarkako malgusegurtasun eredutik aldentzen ari gara.

Euskal Herriko giza kapitala, kualifikatuenetakoa

Euskal Herriak eskulan gazte kualifikatuena du, Europako erreferentziatzko erregioekin alderatuta (ikus grafikoa). Euskal Herrian bizi den 25 eta 64 urte arteko bi aktibotik batek goi mailako ikasketak burutu ditu (%49,0), 2013ko datuen arabera. Proporzio horrek ikaragarri gainditzen du Europako batez bestekoa (%32,2).

Euskal Herrian zein erreferentziatzko beste lurraldeetan, langabezia handiagoa da beti formakuntza maila txikiagoa dutenen artean. Horretan, nabarmentzekoak dira Alemaniako erreferentzia erregioak (Baden-Württemberg izan ezik) eta Katalunia, azken urteko datuen arabera. Baina Euskal Herriak bigarren hezkuntzako (%16,2) eta goi mailako (%9,8) ikasketak dituztenen artean duen langabeziari dagokionez, Kataluniak besterik ez du gainditzen (%20,4 eta %12,8, hurrenez hurren). Norvegia, Baden-Württemberg, Steiermark (Austria) edo Flandriak alde ikaragarria ateratzen digute.

Hala, etorkizuneko erronka ez da bakarrik enplegua sortzea: enplegu horrek biztanleria aktiboaren kualifikazioari erantzun beharko dio, ongi uztartu daitezzen etorkizuneko ekonomia eta dugun eskulana.




Emakumearen desabantailak lan merkatuan

2011tik aurrera emakumeen jarduera eta enplegu adierazleek bilakaera negatiboa izan dute Euskal Herrian. Emakumeen jarduera-tasa %68,4 da gurean; EB-28ko batez bestekoa gainditzen du horrek, baina erreferente diren herrialdeengandik urrun gaude —herrialde horietan kontziliaziorako sistemak martxan dituzte—. Herrialdeka begiratuta, Iparraldeko lurraldeek dute emakumeen jarduera-tasa altuena.

Aipagarria da, bestalde, lanaldi murritzeko kontratuen %80,9a emakumeei egiten zaizkiela, EB-28an baino zazpi puntu gehiago. Hori horrela, esan daiteke gure lan merkatuak oraindik ere ez dituela aukera eraginkorrak eskaintzen emakumearen merkaturatzerako, ez eta bere autonomia ekonomikoa bermatzeko ere.

Emakumezkoen jarduera-tasa (16-64). EH eta Europako erreferentziak, 2013



Informazio gehiago:

[Lan merkatuaren egoera Euskal Herrian \(PDF\)](#)

www.gaindegia.org

Harremanetarako:

Gaindegia (Ana)

943.304.365

ana.soro@gaindegia.org // prentsa@gaindegia.org

